



EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAN KOHESIOA ETA BERTINTASUNA HOBETZEKO LEGEGINTZAKO HERRI EKIMENA

Europako sare pribatu-itunpeko hedatuenetariko bat daukagu Euskadin, ikasleriaren % 50 hartzen du bere barruan. Banaketa orekatu bat al da hori? Ezta gutxiagorik ere, sare bakoitzeko ikasleen artean alde handiak daude.

BA AL ZENEKIEN...?

- ← Itunpeko sarean, batez beste kuotak **1.315** eurokoak dira; sare publikoan, berriz, **400** eurokoa (Eustat 2012).
- ← Itunpeko sarean **ikasle bekadunak** % 39 diren bitartean, eskola publikoan % 61 dira (Eustaten datuetan oinarrituta, 2014-2015 ikasturtea).
- ← Oinarrizko hezkuntzan itunpeko sarean **etorkinen kopurua** % 32 da; sare publikoan bi bider gehiago, % 68. (Euskadiko Eskola Kontseilua, 2014-2015 ikasturtea).
- ← Itunpeko sareak **berriazko hezkuntza premia** duten ikasleen % 40 (6.600) hartzen ditu; sare publikoak % 60 (10.000) (Euskadiko Eskola Kontseilua, 2014-2015).
- ← Itunpeko sarean hizkuntz eredu guztietako (A, B eta D) ikasleek **maila sozioekonomiko** handiagoa dute sare publikoan baino.

Legegintzako Herri Ekimenaren PROPOSAMENAK

- **Irakaskuntza doan**, modu zuzen edo zeharkako kuoten aurka. Gardentasuna eta kontrola zerbitzu osagarrien ordainketan.
- **Inklusio Eskola Premiaren Indizea ezarri behar da** zona eta ikastetxe bakoitzaren arabera. Zona berberak ikastetxe guztientzat, publikoak zein itunpekoak. **Matrikulazio prozesua bateratu behar da**, zonatako matrikulazio bulegoen bidez, gehiegikeriak saihesteko.
- **Itunak ez dira berriztatu behar** desberdintasun sozialeko ikasleentzako arretan (ikasle behar berezikoak, bekadunak, etorkinak...) indize jakin batera heltzen ez diren eliteko ikastetxeekin.
- **Diskriminazio positiboa**: biztanleria kaltetu gehien duten ikastetxeak baliabide gehiagoz hornitu behar dira, eskola komunitatearen eta administrazioaren arteko hitzarmenen bidez.

ESKOLA SEGREGAZIOAREN AURKA

**10.000 SINADURA
BEHAR DITUGU**